

# TELEFONO MUGIKORRAK ETA APLIKAZIOAK EUSKARAZ

2007AN Eusko Jaurlaritzak eta hainbat telefonia operadore eta fabrikatzaillen lankidetzarako hitzarmena sinatu zuten telefonia mugikorraren arloan euskararen erabilera sustatzeko.

Hauek dira hitzarmenak sinatu zituzten enpresak: Alcatel, Eroski, Euskaltel, Nokia, Orange, Samsung, Sony Ericsson, Telefónica, Vodafone eta Yoigo.

Baina gaur egun gero eta ugariagoak dira Android sistemarekin lan egiten duten telefonoak. Momentuz android telefonoetarako euskarazko sistema itzultzen ari da.

Android euskaratzeko egitasmoa ([sustatu.com/1352887811295](http://sustatu.com/1352887811295)) aurrera doan bitartean, probisionalki-edo, 2013an tresna inportantea izaten jarraituko du Custom Localek. Sustatu webgunean badaukazue Custom Locale instalatu eta erabiltzeko instrukzioak ematen duen artikulua ([sustatu.com/1345892746](http://sustatu.com/1345892746)).

Telefonoetarako aplikazioei dagokienez berriz, euskarazko merkatua garatzen ari da eta gero eta gehiago dira euskarazko aplikazioak. Hori dela eta Euskal hiztunen komunitatearentzat eta, batez ere, gailu mugikorrentzat euskaraz idatzitako aplikazioak biltzen dituen webgune bat sortu da: Euskalapps.net-ek: kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat, baita aplikazioen egileentzat ere.